

## Sakramentala

Teologia katolikoaren kontzeptua da.

Sakramentuen antzeko zeinu eta errittoa edo zeremonia da, Elizak berak --eta ez Kristok-- ipinia. Teologia katolikoaren arabera, sakramentalek ez dute eraginik "ex opere operato", \*sakramentuek bezala. Horietakotzat jotzen dira aitaren egitea, otorduko bedeinkapena, erlijiosoen profesioa, eta abar. Ik. Aitaren egitea; Erlijioso-profesioa.

Gauza sagaratu edo bedeinkatu jakin batzu ere sakramentalizat hartzen dituzte, jaierazko egiteetarako erabiltzen dituzte-nean: e.b., ur bedeinkatua, gurutzaren seinalea egitekoa edo edozer bedeinkatzekoa; ogi bedeinkatu eta jatekoa; etab. Ik. Ur bedeinkatua; Gurutzea egitea.

## Sakramentalismoa

Kristau-biziera eta \*apostolutza sakramentu-errittoa betetze edo bete erazte hutsan gauzatzen direlako ustea. Gehienetan kristauren barneko jarrera eta fedea susperztearen aurrez aurre ipintzen dute sakramentalismoa.

Ik. Erritualismoa; Ebanjelizazioa.

## Sakramentologia

Teologiaren alorretako bat, \*sakramentuei buruzko \*irakasbidea ikasten duena.

## Sakramentua

Fedearen ospakuntza dira sakramentuak, Jesusen berri ematera eta horren urratsak segitzera beren bizitza lotzen eta bideratzen duten gizon-emakumei Jainkoak egiten dien bere buruaren dohaintzaren esperientzia sakontzat ulertzen badugu fedea. \*Sinboloen bidez agertu beharra dauka, giza bizitzaren dimentsio guztiak hartzen dituen esperientzia horrek. Jainkoarekiko atxekimendua, Jesukristoren bidezkoa, adierazi egiten dugu sakramentuen --fedearen funtsezko sinboloen-- bitartez.

Jesukristogan gizon-emakumei bere burua errebelatzen dien Jainkoaren dohaina da \*fedea; era berean, beren jatorria eta izaera Jesukristogan duten sinbolotzat hartu behar dira sakramentuak, eta ez erlijiozko sentimendu eta jarreraren adierazpen soilizat.

Jesukristo bera da funtsezko eta jatorriko sakramentua; beragandik hartzen du kristau-bizitzak sakramentuzko egitura. Sakramentua da \*Jesukristo, ez gizon-emakumeen artean Jainkoa lekukotzen eta ikuskorki bertakotzen duelako bakarrik (Jn 14,9), bere ihardun edo jokabide askatzaileagatik ere

bai, batez ere, bere heriotza-piztuaren bitartez, horien bidez lortzen bait dute gizon-emakumeek \*salbamen osoa eta Jainkoagana hurbildu ahal izatea. Horregatik sakramentuzko den edozerk du, berez, adiera kristologikoa.

Eliza bera Kristoren sakramentua da, Vatikanoko II. Kontzilioak (Lumen Gentium 1,9; 48; Gaudium et Spes 42; 45) gogorarazi duenez, bere mezuan eta bere ekintzan Jaunaren salbamea eta Jainkoaren Erreinuaren eraikuntza gorakorra egikaritzen bait ditu.

Elizaren ihardun jator osoak du, bada, sakramentuaren zentzua; Jainkoaren gizon-emakumetako tartekotasun salbagarriaren sinbolo eraginkorra da ihardunbide hori. Sakramentu deritzaen zazpi \*erritoetan agertzen du Elizak berezi-bereziki bere sakramentutasuna. Jatorriz Kristok ipini zituen sakramentu horiek; horrek ez du esan nahi, ordea, horien oraingo tankera ezarri zuenik, gaur horien inguruan egiten dituzten sinbolozko ohikune eta errito guztiekin. Kristoren sakramentuekiko nahia egokituz etorri da Eliza, \*pastoraltzaren arabera.

Giza bizitzako aldiune eta garai berezietan fedezko esperientzia komunikatu eta adierazi egiten du fededunak sakramentuen bitartez. Horretxan bitartez sinbolizatzen da norbanakoen eta elkarteen historian Jainkoak dituen bertakotasuna eta ekintza.

Jesukristoganako fedetik sortzen den esperantza sendoaren bizipen pozgarria ospatzen du Elizak bereziki sakramentuetan. Bide horretatik jai-giroko ospakuntza gisa ulertu behar dira sakramentuak: horietan aitoritzen eta birbizitzen dute elkarrekin beren salbamea fededunek.

Kristau-biziera osoak du, azken batez, sakramentu-zentzu sakona. Jainkoaren Erreinuaren eraikuntzaren, Jesukristoren salbamearen burutzapen aurrerakorraren eta azkenburuko sakramentu diren haren heriotza-piztuaren gertaberritzearen sinbolo eraginkorra da fededunaren bizitzako fedezko praxi osoa.

Ik. Errittoa; Gertaberritzapena; Bataioa; Aldareko sakramentua; Sendotza; Penitentziako sakramentua; Ezkontza; Ordenazioa; Gaixoen oliadura.

Felix Placer Ugarte  
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

## Sakramentu txit santua

Ik. Aldareko sakramentua, 2.

## Sakramentu txit santua gordean ipintzea

Eliza Katolikoaren eta Ortodoxoaren ihardunbidea, eukaristian sagaraturiko ogia-